

GURE HIZKUNTZAK

Unitate honetan gure herrian dugun hizkuntza aniztasuna ezagutu eta berau balorean jarriko dugu. Sekuentzian zehar hizkuntzen inguruan hausnartuko dugu, Durangon zein hizkuntza erabiltzen ziren eta gaur egun zeintzuk erabiltzen diren eta zertarako balio duten hizkuntzak ere ikusiko dugu. Sekuentzia bukatzeko Bernardo Atxagarenzen Arraroa Noski! testua oinarri hartuta kantu bat osatuko dugu.

Azoka txikia

Atal hau unitate guztietan edukiko dugu. Bertan, gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du zertan ari garen.

Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Ikasleak ahozkoatasuna landuko du horrela.

Mari eta konpainia

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurrezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak edozein eskolatan gertatu daitekeen egoera bat azaltzen du, non etorri berri batzuen beraien hizkuntzetan hitz egiten dieten haurrei. Horrez gain, laguntza galdera batzuk proposatzen dira. Inportanteena gaiari buruz hitz egitea eta bakoitzaren bizipenak beste ikasleekin konpartitzea.

Jarduera hau egiteko guztiok elkar entzuteko moduan jarriko gara, borobilean adibidez.

Osaba Bitorren ipuina

Sekuentzian azaltzen den hurrengo jarduera Osaba Bitorren ipuina da. Ipuin hau hurrengo jardueretara sarrera egiteko erabiliko dugu. Baliteke testuan azaltzen diren ideia batzuk ez ulertzea, beraz inportantea izango da testua gelan ahoz lantzea. Komikian erabilitako laguntza galderak erabilgarriak izan daitezke eta baita ikasleek emandako erantzunak ere.

Hizkuntzaren bitxilorea

Hurrengo jardueran gu eta hizkuntzen arteko harremanaz jabetzea izango da helburua. Horretarako egunerokoan erabiltzen ditugun hizkuntzak zeintzuk diren eta zeinekin erabiltzen ditugun hausnartu eta lore bat egingo dugu.

Jarduera hau egitean gelako hizkuntza aniztasuna azalduko da ziurrenik. Esan beharrik ez dago gelako kide guztien hizkuntza errealitateak errespetuz eta aberastasun moduan hartuko ditugula.

Nahi izanez gero kartulina erabiliz lorea bera egin dezakegu eta bakoitzak bere lorea aurkeztea ere interesgarria izan daiteke.

Hizkuntzak ikasgelan

Behin ikasle bakoitzak bere hizkuntzaren lorea egin eta gero, ikasgelako bitxilorea egingo dugu. Bertan, gelakide bakoitzaren hizkuntza guztiak jarriko ditugu. Honela gure gelan daukagun aberastasuna irudikatuko dugu.

Aurreko jardueran egin dugun bezala kartulinarekin egin genezake eta gelan jarri.

Hizkuntzak Durangon

Hurrengo jardueran Durangoko gaur egungo hizkuntzen inguruan ariko gara. Bertan zeintzuk diren hizkuntza ofizialak eta horrek zer esan nahi duen ikusiko dugu eta baita bi hizkuntza hauez gain, zein hizkuntza erabiltzen diren ere.

Jarduera honetan elebakar, elebidun eta eleanitz hitzak azalduko dira. Gelan hauen inguruan hitz egitea ondo egongo litzateke, inportantea izango baita ondo ulertzea hurrengo jarduera egiteko.

Ezagutzaren bilakaera

Hizkuntzen ezagutza datuak ematen dituzten bi grafiko ikusiko ditugu, non aurretik aipatutako kontzeptuak azaltzen diren. Bi grafiko hauek erabili eta konparaketak egingo ditugu bi grafikoen inguruan.

Behin hau eginda, euskararen erabileraren inguruan hitz egingo dugu. Ea, ezagutza eta erabilera datuak berdinak diren, ezberdintasunik balego zergatik gertatzen den eta euskara gehiago erabili nahiko bagenu, zer egin dezakegun berau lortzeko.

Hausnarketa hau talde handian egin dezakegu edo eta talde txikietan banatu eta bakoitzean irtendako ideak konpartitu. Lotura egin daiteke Euskararen Eguna, Euskara 365 Egun kanpaina, ...

Honekin lotuta Berbaro Elkartea ere aurkezten da beheko testuan. Elkartearen xedea azaltzen du.

Berbarok zer egiten duen sarean topatzea izan daiteke ariketa interesgarria, beraiek inoiz ezer egin badute konpartitu, egitea gustatuko litzaiekeen jardueraren bat bilatu, elkarteko partaideren bat gonbidatu,

Hizkuntza, komunikatzeko tresna

Ahozkoak ez diren hizkuntzak ezagutuko ditugu hurrengo jardueran. Bertan, gorrek erabiltzen duten zeinuen hizkuntzako alfabetoa ikusiko dugu. Bakoitzak esaldi bat edo hitz bat adierazi eta asmatzera jolastu gaitezke taldeka adibidez. Gero, Negua Joan da eta bideoa ikusiko dugu.

Bideo hau ikusteko aukera bat baino gehiago egon daitezke. Bolumen gabe ikusi dezakegu lehenengo eta gero bolumenarekin, gure inpresioak eta sentimenduak partekatuz. Beste jarduera bat hitzik erabili gabe abestea eta dantzatzea izan daiteke, Ainhoa Moia imitatuz.

Berba barik

Hurrengo jarduera antzerki edo gorputz adierazpena erabiliz egoeraren bat antzetztea izango da.

Ariketa hau bakarka edo taldeka egin daiteke. Denbora bat utziko diegu nola antzetzte pentsatzeko. Gaiak talde bakoitzak asmatu ditzake, edo zerrenda bat egin eta zozketatu.

Azken ekoizpena

Esan bezala, Bernardo Atxagaren testua (Bittor Aiaperen bertsioa) hartuko dugu azken ekoizpena egiteko oinarri bezala. Bertan, gelako hizkuntza guztietan abestiaren leloa abestuko dugu.

Abesti hau denon artean abestu eta grabatu dezakegu, eskolako jaian abestu edo bururatzten zaizuen beste edozer.

Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.